

ESAERA ZAHARREN AZALPENAK

PLENTZIAKO II. ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA 2011/09/24

“Adiskide onekin orduak labur”

ESAEREN AZALPENA

1. ABENDUKO EGUNA, ARGITU ORDUKO ILUNA

Abenduan egunak oso laburrak dira eta oso goiz iluntzen du.

2. ADISKIDE ONEKIN ORDUAK LABUR

Konpainia onean gaudenean denbora azkarrago pasatzen dela iruditzen zaigu.

3. AITA BILTZAILE, SEME GASTATZAILE

Askotan gurasoek bizitzan zehar lortutako guztia seme-alabek gastatzen dute arin-arin.

4. AMARI EGINDAKO ZORRAK EZ DIRA INOIZ ORDAINTZEN

(Zorra= deuda)

Amek normalean dena ematen dute seme-alaben alde, baina seme-alabek ez dute beti modu berean erantzuten.

5. APAIZAK ETA PRAILEAK, HEGAL GABEKO BELEAK

Erljio gizonak ez dira beti oso onak izan historian zehar; bestetik, belea sorginkeria eta gaiztakeriarekin lotu izan da beti.

6. ARDI GALDUA ATZEMAN DAITEKE, ALDI GALDUA BERRIZ EZ

Bizitzan askotan aukerak konturatu barik pasatzen zaizkigu eta zaila izaten da momentuan ohartzea.

7. ARDO GOZOAK LAU BEGI ETA OINIK EZ

Ardo on asko edaten denean dena modu bikoitzean ikusten da eta ez gara ibiltzeko oso ondo egoten.

8. ASKO BALIO DU INDARRAK, GEHIAGO BURU AZKARRAK

Askotan indartsua izatea baino garrantzitsuagoa da burua erabiltzen jakitea. Erdaraz: “Más vale maña que fuerza”.

9. ASKOREN MINA, TONTOEN ATSEGINA

Erdarazko “Mal de muchos consuelo de tontos” esaeraren parekoa.

10. ASTOA, ZALDIZ JANTZI ARREN, BETI ASTO

Gauzak diren bezalakoak dira, itxura aldatzen saiatu arren.

11. AURPEGIAK ASKO ESATEN DAU

Gaztelaniaz badago honen parekoa: “La cara es el espejo del alma”.

12. BAKOITZAK BERE ASTOARI EGITEN DIO ARRE

Bakoitza bereaz arduratzen da (edo arduratu behar da).

13. BALIZKO ESNEAREKIN EZIN GOSALDU

Hipotesietan ibiltzeak ez digu ezertarako balio bizitza errealean.

14. BARATXURIA, ZAZPI GAITZEN KONTRAKO JANARIA

Baratxuria: berakatz / Gaitz: gaixotasun, kalte

Baratxuria ona da hainbat gaixotasun sendatzeko (edo prebenitzeko).

15. BAT ESAN ETA BESTEA EGIN, NOLA ASMATU HORRELAKOekin?

Normalean, gauza bat esan eta beste bat egiten duten pertsonekin ez da jakiten zelan jokatu, ez dakigulako zerekin etorriko zaizkigun.

16. BEHI BAT ESNETSUE OBA, BI ANTZU BAÑO

Hobea izaten da gutxi eta ona edukitzea, asko eta txarra baino.

17. BESTEREN KONTURA DENEAN, JALE TXARRIK EZ

Denok egoten gara prest zerbait egiteko beste norbaiten kontura egingo badugu, eta askotan, hobeto egiten dugu.

18. BI URTE HITZ EGITEN IKASTEKO; BIZITZA OSOA ISILIK EGOTEN JAKITEKO

Hitz egiten erraz ikasten dugu, baina momentu askotan isilik egon behar dugu, eta momentu horiek zeintzuk diren jakitea ez da hain erraza izaten. Isilik geratzea (hanka ez sartzeko) zaila da eta askok ez dute bizitza osoan ikasten.

19. BURLA MINENA, EGIA DIOENA

Askotan egia esaten denean egiten da minik handiena, egia entzutea askotan oso gogorra da eta.

20. BURURIK EZ DUENAK, HANKAK IBILI BEHAR

Gauzak egin baino lehenago, ondo pentsatu; bestela, lan bikoitza egingo duzu.

21. DAGOENEAN PAR-PAR, EZ DAGOENEAN NEGAR

Momentu batzuetan pozik egongo gara gauzak ondo atera zaizkigulako; beste batzuetan, ordea, triste egongo gara ez zaizkigulako hain ondo atera.

22. DIRUA MORROI ONA, BAINA NAGUSI TXARRA

Dirua gure menpe dagoenean ez dago arazorik, baina kontrakoa gertatzen denean ez da hain ona izaten. Dirua edukitzea hobea da faltan izatea baino.

23. EGIA EGI, OGIA OGI, ARDAUA ARDAU, BI TA BI LAU

Gauzak diren bezalakoak dira edo izan behar dira eta ez dago beste bueltarik.

24. EGIA HUTSA BE, GAUZA SIKUA EI DA

Noizean behin gezurtxoren bat esatea ona da, baina bakarrik noizean behin eta gezur txikiak. Beti egia esatea gogorra da.

25. ENBIDIOSOA, BERE ETSAI OSOA

Inbidia oso txarra da eta besteen inbidia daukan pertsonak bere buruari egiten dio kalterik handiena. Daukagunarekin pozik egoten ikasi behar dugu, besteek daukatenari hainbeste erreparatu barik.

26. ENTZUN ETA ISIL, BAIEZKO BOROBIL

Gaztelaniaz: "El que calla, otorga".

27. ERORIZ IKASTEN DA OINEZ

Gauzak apurka-apurka ikasten dira, pazientziaz eta akatsak eginez. Akatsetatik beti ikas daiteke zerbait.

28. ESKUKO BEHATZAK ERE EZ ZITUEN JAINKOAK BERDINAK EGIN

Behatzak: atzamarrak

Den-denok gara ezberdinak, onerako edo txarrerako.

29. ETXEAN OTOITZIK EZ EGITEN, ETA AUZOAN MEZA EMATEN

Jende askok berak bakarrik dagoenean egiten ez duena, besteen aurrean egiten du (hipokresia).

30. ETXEKO SUA ETXEKO HAUTSEZ ESTALI BEHAR DA

Etxeko arazoak etxe barruan konpontzea da onena.

31. EUSKARA BIHOTZEAN BAINA ERDARA EZPAINETAN

Gure herrian, zoritxarrez, egunero argi eta aldi gehiegitan ikus daitekeen egoera.

32. EZ EUKITXA ERE, MAITE ZAITXUNAK EMANGO DIZU

(Ez edukita ere, maite zaituenak emango dizu)

Maite zaituen pertsonak beti egingo du ahal duena zu laguntzeko eta zerbait behar baduzu beti saiatuko da hori ematen, ez badauka ere.

33. EZKONDU BAINO LEHEN, KONTU ZER EGITEN DEN

Ezkontzea oso kontu serioa da eta askotan ondo pentsatu gabe egiten da, baina gauzak ez dira beti diruditen bezain politak eta onak, horregatik ondo pentsatu behar da ezkondu aurretik.

34. FESTAK AURREA EDERRAGO DU ATZEA BAINO

Jaietan oso ondo pasatzen du jendeak, baina jaien aurretik ere, ailegatzeko gogoz egoten delako, baina ostekoa beste gauza bat da, hor ez da hain ondo pasatzen (eta urteekin gero eta txarrago!).

35. GANORABAKOEN ETXEAN GOIZEKO SALDA ARRATSEAN

(Ganorabako= ganorarik edo fundamenturik ez daukana)

Fundamenturik ez daukaten pertsonak, gehienetan, gauzak edozein modutan egiten dituzte.

36. GAUR HITZA EMAN, BIHAR HAIZEAK ERAMAN

Gehienetan hitzek ez daukate balio handirik eta gaur esaten dena biharko ahaztuta dago, ez bada paperean jasotzen.

37. GEZURTIAK ZER DUEN MEREZI? EGIA ESATEAN EZ SINETSI

Norbaitek gezur asko esaten badizu, horixe izan daiteke zigorrik onena: egia esaten dizunean ez sinestea. Artzain gezurtiaren ipuinaren irakaspena (“moraleja”) da hori.

38. HAITZEAN JAIKAK HAITZERA NAHI

Bakoitzak bere jaioterrian edo jaiotako lekuan egon nahi du eta hori da defendatzen duena beti. (Erdaraz= “La cabra tira al monte” edo horrelako zerbait)

39. HARROAK ESKURIK EZ, BAI AHOA

Harroek ez dute ezer egiten, baina aho handia dute gero euren burua goratzeko.

40. HARTZEKO PRONTO, EMATEKO TONTO

Errazagoa izaten da hartzea ematea baino eta arinago ibiltzen gara hartu behar dugunean eman behar dugunean baino.

41. HITZEK BAINO GEHIAGO LORTZEN DUTE MALKOEK

Askotan lau malko botata pentsaezinak diren gauzak lortzen ditu jendeak. Hitz eginez baino askoz gehiago.

42. IBILTARI GAUEAN, LOGALE GOIZEAN

Gaez hortik ibili ostean goizetan ez gara oso fresko egoten.

43. JAKINDURIAK MUGAK DITU; EZJAKINTASUNAK EZ

Ezer ez dakitenek, asko dakitelakoan, botatzen dituzte munduko astakeriarik handienak. Dakienak, ordea, moderatzen du bere diskurtsoa.

44. KANPAIA NAHI EZ DUENAK ADITU, EZ DEZALA SOKA MUGITU

Ez badugu zerbait gertatzea nahi ez dugu hori probokatu behar, probokatzen badugu ondorioak jasan behar izango ditugu.

45. KATILUAN ZEIN ITSASOAN, ITOTZEA BETI ITOTZE

Hiltzeko modu asko daude, batzuk heroikoak, beste batzuk tontoagoak, baina emaitza azkenean berbera da.

46. LANIK ERRAZENA, AGINTZEA

Agintzea denoi gehien gustatzen zaigun lana da, gainera ez da ahalegin handirik egin behar horretarako.

47. LAZTAN ASKO TA MAITE GITXI, ASKO GURE ETA BERTAN ITXI

Giza-harremanetan, maitasuna barne, sakontasuna behar da; bestela, azaleko harremanak sortzen dira eta horiek berehala desagertzen dira (bakoitzak nahi duen bezala uler dezala!).

48. LISTUEK EGOTeko LELUEK BE EGON BEAR

Pertsona azkarra ergelaren lepotik bizi ohi da.

49. LOREAK ARANTZIA, TA GOZUAK BE MINGOTSA

Arantzia: arantza

Gauza guztiek daukate euren alde txarra, onak badira ere.

50. LOTSABAKOARI LOTSABAKO T' ERDI.

Lotsabako: lotsagabe

Inor oso lotsagabea bada zurekin, onena da modu berean edo okerrago erantzutea, lotsa gutxirekin edo gutxiagorekin. Gaztelaniaz: "Si quieres taza, taza y media".

51. MARINELAREN EMAZTEA, GOIZEAN SENARDUN, ARRATSEAN ALARGUN

Marinelen bizimodua oso latza da, itsasoan ibiltzea arriskutsua da eta emazte askok galdu du senarra itsasoan.

52. MEDIKUAK GORPUTZA GARBITU, APAIZAK ARIMA, ABOKATUAK POLTSA

Abokatuek beti eduki dute oso fama txarra jende artean.

53. NAHI BADA JAN, EGIN BEHAR DA LAN

Zoritxarrez, janaria erosteko dirua behar dugu eta dirua lortzeko lan egin behar dugu (gehienok, behintzat).

54. NESKATXA POLITAK, IDIAK BAINO GEHIAGO TIRATZEN

Gaztelaniaz: “Tiran más dos tetas que dos carretas”.

55. ONA TA MERKE, NEUK BE HARTUKO NEUKE

Gutxitxan gertatzen da gauza ona merke egotea, baina horrelako zerbait gertatzen zaigunean aukera aprobetxatu behar da.

56. OPARIA, LOKARRIA.

Lokarri: “atadura, obligación”

Zerbait ematen badigute oparitan, nolabaiteko obligazioa sortzen zaigu oparia egin digun horrekiko. Zorretan geratzen gara berarekin.

57. SALDA HOTZA ETA ARDO BEROA, GAUZA EROA

Gauzak modu egokian erabili behar dira. Horregatik, ez da batere zentzuduna salda hotz dagoela hartzea, edo ardo beroa edatea, edo beste hainbat gauza.

58. SANTUTASUN ETA DIRU, HAMARRETIK HIRU

Oso-oso zaila da (ezinezkoa ez esateagatik) aldi berean aberatsa eta santua izatea. Aukeratu egin behar da: aberatsa ala santua.

59. ZIKINA GARBITZEN UREZ, GAIZKIA URREZ

Zikintasun mota asko dago: fisikoak urez garbitzen dira, baina moralak diruz garbitu ohi dira (isun, kalte-ordain edo eroskeriaren bidez).

60. ZUHURRAK, INDARTSUA GARAITU

Askotan hobea da azkarra izatea indartsua baino.

Gaztelaniaz: “Más vale maña que fuerza”.

ESAERA ZAHARREN ZERRENDA

PLENTZIAKO II. ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA 2011/09/24

“Adiskide onekin, orduak labur”

ESAEREN ZERRENDA

- 1. ABENDUKO EGUNA, ARGITU ORDUKO ILUNA**
- 2. ADISKIDE ONEKIN ORDUAK LABUR**
- 3. AITA BILTZAILE, SEME GASTATZAILE**
- 4. AMARI EGINDAKO ZORRAK EZ DIRA INOIZ ORDAINTZEN**
- 5. APAIZAK ETA PRAILEAK, HEGAL GABEKO BELEAK**
- 6. ARDI GALDUA ATZEMAN DAITEKE, ALDI GALDUA BERRIZ EZ**
- 7. ARDO GOZOAK LAU BEGI ETA OINIK EZ**
- 8. ASKO BALIO DU INDARRAK, GEHIAGO BURU AZKARRAK**
- 9. ASKOREN MINA, TONTOEN ATSEGINA**
- 10. ASTOA, ZALDIZ JANTZI ARREN, BETI ASTO**
- 11. AURPEGIAK ASKO ESATEN DAU**
- 12. BAKOITZAK BERE ASTOARI EGITEN DIO ARRE**
- 13. BALIZKO ESNEAREKIN EZIN GOSALDU**
- 14. BARATXURIA, ZAZPI GAITZEN KONTRAKO JANARIA**
- 15. BAT ESAN ETA BESTEA EGIN, NOLA ASMATU HORRELAKOEKIN?**
- 16. BEHI BAT ESNETSUE OBA, BI ANTZU BAÑO**
- 17. BESTEREN KONTURA DENEAN, JALE TXARRIK EZ.**
- 18. BI URTE HITZ EGITEN IKASTEKO; BIZITZA OSOA ISILIK EGOTEN JAKITEKO.**
- 19. BURLA MINENA, EGIA DIOENA**
- 20. BURURIK EZ DUENAK, HANKAK IBILI BEHAR**
- 21. DAGOENEAN PAR-PAR, EZ DAGOENEAN NEGAR**
- 22. DIRUA MORROI ONA, BAINA NAGUSI TXARRA**
- 23. EGIA EGI, OGIA OGI, ARDAUA ARDAU, BI TA BI LAU**
- 24. EGIA HUTSA BE, GAUZA SIKUA EI DA.**
- 25. ENBIDIOSOA, BERE ETSAI OSOA**
- 26. ENTZUN ETA ISIL, BAIEZKO BOROBIL**
- 27. ERORIZ IKASTEN DA OINEZ**
- 28. ESKUKO BEHATZAK ERE EZ ZITUEN JAINKOAK BERDINAK EGIN**
- 29. ETXEAN OTOITZIK EZ EGITEN, ETA AUZOAN MEZA EMATEN**
- 30. ETXEKO SUA ETXEKO HAUTSEZ ESTALI BEHAR DA**
- 31. EUSKARA BIHOTZEAN BAINA ERDARA EZPAINETAN**
- 32. EZ EUKITXA ERE, MAITE ZAITXUNAK EMANGO DIZU**
- 33. EZKONDU BAINO LEHEN, KONTU ZER EGITEN DEN**
- 34. FESTAK AURREA EDERRAGO DU ATZEA BAINO**
- 35. GANORABAKOEN ETXEAN GOIZEKO SALDA ARRATSEAN**

36. GAUR HITZA EMAN, BIHAR HAIZEAK ERAMAN
37. GEZURTIAK ZER DUEN MEREZI? EGIA ESATEAN EZ SINETSI
38. HAITZEAN JAIKAK HAITZERA NAHI
39. HARROAK ESKURIK EZ, BAI AHOA
40. HARTZEKO PRONTO, EMATEKO TONTO
41. HITZEK BAINO GEHIAGO LORTZEN DUTE MALKOEK
42. IBILTARI GAUEAN, LOGALE GOIZEAN
43. JAKINDURIAK MUGAK DITU; EZJAKINTASUNAK EZ
44. KANPAIA NAHI EZ DUENAK ADITU, EZ DEZALA SOKA MUGITU
45. KATILUAN ZEIN ITSASOAN, ITOTZEA BETI ITOTZE
46. LANIK ERRAZENA, AGINTZEA
47. LAZTAN ASKO TA MAITE GITXI, ASKO GURE ETA BERTAN ITXI
48. LISTUEK EGOTeko LELUEK BE EGON BEAR
49. LOREAK ARANTZIA, TA GOZUAK BE MINGOTSA
50. LOTSABAKOARI LOTSABAKO T'ERDI
51. MARINELAREN EMATZEA, GOIZEAN SENARDUN, ARRATSEAN
ALARGUN
52. MEDIKUAK GORPUTZA GARBITU, APAIZAK ARIMA, ABOKATUAK
POLTSA
53. NAHI BADA JAN, EGIN BEHAR DA LAN
54. NESKATXA POLITAK, IDIAK BAINO GEHIAGO TIRATZEN
55. ONA TA MERKE, NEUK BE HARTUKO NEUKE
56. OPARIA, LOKARRIA.
57. SALDA HOTZA ETA ARDO BEROA, GAUZA EROA
58. SANTUTASUN ETA DIRU, HAMARRETIK HIRU
59. ZIKINA GARBITZEN UREZ, GAIZKIA UREZ
60. ZUHURRAK, INDARTSUA GARAITU